## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**1388**

**138/2007 FORU AGINDUA, otsailaren 23koa. Honen bidez, Lantarongo Larrazubiko SAUR-1 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea.**

AURREKARIAK

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren abenduaren 21eko 1195/2006 Foru Aginduaren bidez, Larrazubiko (Lantaron) SAUR1 sektorearen plan partzialaren espedientearen behin betiko onarpena bertan behar geratu zen, harik eta foru aginduaren funtsezkoak ez diren aldarazpenak espedientera bildu arte. Hortaz, behin hutsak zuzenduta, espedientea foru aldundiari igorriko zaio, eta ez da beharrezkoa izango jendaurrean jartzea, behin betiko onar dadin.

Lantarongo Udalak 2007ko otsailaren 6an aldundiari igorri dio espedientearen testu bateratua, halaxe balegokio, behin betiko onar dadin. Espedientera kasuan kasuko elkargo profesionalak 2007ko urtarrilaren 29an eta otsailaren 15ean bisatutako agiriak bildu dira.

OINARRIAK

Espedientea osatzen duten agiriak aztertu ondoren, aipatutako foru aginduan ezartzen ziren aldaketak bete direla egiaztatu da.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Lantarongo Larrazubiko SAUR-1 sektorearen plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean, ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 23a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

### ORDENANTZA ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. LURRALDE APLIKAZIO EREMUA

Larrazubiko SAUR-1 plan partzial honetako zehaztapenek arau izaera izango dute Ordenazio-planoetan adierazitako esparruan. Muga zehatzak jasotze topografikoan daude ezarrita, baina A-2122 errepidearekiko tarte mugakidean, jabari publikoko eremua baztertu da, abenduaren 1195/2006 Foru Aginduan aipatutakoarekin bat etorrita.

Hortaz, sektorearen azalera osoa 17.404,461 m$^2$ da.

2. artikulua. EDUKIA/CONTENIDO

Lantarongo planeamenduaren ordezko arauetako Larrazubiko SAUR-1 sektoreko lurzoruaren kalifikazio guztiak arautzen dituzte ordenantza hauek, bai eta hori garatzeko ezartzen diren planeamendu tresnek bete behar dituzten zehaztapenak ere.

Plan partzial honek zehaztuko du sektore osoa gunetan banatuko den modua, lehentasunezko erabileren arabera.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**1388**

**ORDEN FORAL 138/2007, de 23 de febrero, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-1 en Puentelarrá, municipio de Lantarón.**

ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral nº 1195/2006, de 21 de diciembre de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, se suspendió la aprobación definitiva del expediente del Plan Parcial SAUR-1 en Puentelarrá (Lantarón), hasta la introducción en el expediente de las modificaciones no sustanciales que se señalaban en dicha Orden Foral por lo que, una vez subsanadas, procedía elevar el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de poder proceder a su sanción definitiva.

Con fecha 6 de febrero de 2007, el Ayuntamiento de Lantarón ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente integrado por documentos visados por el correspondiente Colegio Profesional en fechas 29 de enero y 15 de febrero de 2007, a fin de que sea aprobado definitivamente si procediese.

FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente Plan Parcial del SAUR-1 en Puentelarrá (Lantarón).

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 23 de febrero de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

### ORDENANZAS REGULADORAS

CAPÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artº 1: ÁMBITO TERRITORIAL DE APLICACIÓN

Las determinaciones del presente Plan Parcial correspondiente al S.A.U.R. 1 de Puentelarra, tendrán carácter normativo en el ámbito indicado en los planos de ordenación. La delimitación exacta viene definida en el levantamiento topográfico realizado para tal efecto, si bien en el tramo colindante con la carretera A-2122 se ha excluido la Zona de Dominio Público de la citada carretera de conformidad con lo señalado en la Orden Foral 1.195/2006 de 21 de diciembre.

En consecuencia la superficie total del Sector es de 17.404,461 m$^2$.

Artº 2: CONTENIDO

Estas ordenanzas regulan el régimen de cada una de las calificaciones de suelo incluidas en el S.A.U.R. 1 de Puentelarra de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón, así como las especificaciones que deberán cumplir los instrumentos de planeamiento que lo desarrollan.

El presente Plan Parcial definirá la división en zonas de la totalidad del Sector, conforme a sus usos prioritarios.

Ordenantzak hiru atal handitan egituratuko dira:
- Xedapen orokorrak
- Lurraren Hirigintzako Araubidea.
- Guneen Ordenantza Bereziak

3. artikulua. BETEBEHARREKOTASUNA

Ordenantza honetako artikuluak nahitaez aplikatu beharko dira plan partzialaren eremuan egiten diren jardun guztietan.

4. artikulua. LANAK EGITEA

Larrazubiko SAUR-1 sektorea egikaritze unitate bakar batean gauzatuko da.

5. artikulua. INDARRALDIA

Ordenantza hauek indarrean sartuko dira Plan partzialaren onespen argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo dira eperik gabe, barnean hartzen duen beste Plan bat behin betiko onetsi arte.

6. artikulua. AGIRIAK

Honako plan partziala osatuko dute zehaztapenen agiri hauek:

- I. Agiria: Memoria
- 2. Agiria: Ordenantza Arautzaileak
- 3. Agiria: Etapen Plana
- 4. Agiria: Ekonomia eta Finantza azterlana
- 5. agiria: Planoak

Ordenantza hauetan araututa ez dagoen guztirako, Lantarongo planeamenduko ordezko arauak aplikatuko zaizkie.

Urbanizazioaren eta eraikuntzaren arloan indarrean diren lege, arautegi, dekretu eta abar guztiak, baita gero ager daitezkeenak ere, nahitaez bete beharrekoak dira.

7. artikulua. AGIRIEN BALIO ARAUTZAILEA

Proiektuko arauen edukia oro har bere baitan hartzen dituzten agiri guztiek itxuratzen duten arren, berez ordenazio-planoek, Ordenantza Arautzaileek eta Etapen Planak erregulatzen dute hirigintzako jarduera eta, beraz, horietan ezarritako zehaztapenak nahitaez bete beharrekoak dira.

Gainerako agiriak azalgarriak edo adierazgarriak dira funtsean eta, hortaz, edukian lehenago aipatutakoekin kontraesanik balego, ordenazio-planoak eta hirigintzako arauak nagusituko dira.

8. artikulua. EXEKUZIO TRESNAK

Plan partzial hau gauzatzeko tresnak honakoak izango dira: jabe bakarreko konpentsazio proiektua; horren helburua finken konfigurazioa arautzea da, horien aprobetxamendu goiko aldeetan kokatuko baita, planeamenduaren arabera. Beste helburu bat da derrigorrezko eta doaneko lagapeneko hornidura-esparruak eta Udalari aprobetxamenduaren %10eko kontzeptuan adjudikatu beharreko irabazi asmoko lursailak kokatzea; Urbanizazio Proiektua, urbanizazioko berezko obrak egitea helburu duena; eta Eraikitzeko Proiektuak, eraikinak burutzea helburu dutenak.

Eraikitzeko proiektuetarako lizentzia eskuratu baino lehen, urbanizazio proiektu egokia idatzi beharko da, plan partzial honetan zehaztutako guneetako bakoitzerako ezartzen diren zehaztapenei jaramon eginez.

9. artikulua. JARDUKETA SISTEMA

Jarduketa sistema konpentsazioa da.

10. artikulua. PAN PARTZIAL HONETATIK SORTUTAKO BETEBEHARRAK

Plana betetzearen ondoriozko konpromisoek behartzen dituzte planaren sustatzailea, lursailak erosiko dituztenak nahiz Udaletxea; konpromiso horiek honakoak dira:

1.- Plan Partzial honetan aurreikusitako hornidura-esparruek osatzen dute bideen sistema orokorra, gune askeen eta erabilera eta jabari publikoko berdeguneen sistema, bai eta ekipamendu orokorreko sistema. Esparru horiek publikoak izango dira, eta udalerriari derrigorrean eta doan laga behar zaizkio.

Las Ordenanzas se estructuran en tres grandes apartados:
- Disposiciones Generales
- Régimen Urbanístico del Suelo
- Ordenanzas Particulares por Zonas.

Artº 3: OBLIGATORIEDAD

Los diferentes artículos de las presentes Ordenanzas deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las actuaciones que se realicen dentro del ámbito del Plan Parcial.

Artº 4: EJECUCIÓN

La ejecución del S.A.U.R. 1 en Puentelarra se efectuará en una única unidad de ejecución.

Artº 5: VIGENCIA

La fecha de entrada en vigencia de las presentes Ordenanzas será el día en que se publique la aprobación definitiva del Plan Parcial, y su vigencia será indefinida hasta que se apruebe definitivamente otro nuevo que lo abarque.

Artº. 6: DOCUMENTACIÓN

El presente Plan Parcial está compuesto por los siguientes documentos que integran sus determinaciones.

- Documento 1: Memoria
- Documento 2: Ordenanzas Reguladoras
- Documento 3: Plan de Etapas
- Documento 4: Estudio Económico-Financiero
- Documento 5: Planos

Para todos aquellos aspectos no regulados en las presentes Ordenanzas les serán de aplicación las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón.

Todas la Leyes, Reglamentos, Decretos, etc. en vigor, referentes a materia de urbanismo, construcción y actividades, así como los que aparezcan en el futuro, son de cumplimiento obligatorio.

Artº 7: ALCANCE NORMATIVO DE LA DOCUMENTACIÓN

Si bien el contenido normativo del presente proyecto queda definido por el conjunto de documentos enumerados en el artículo anterior, son los Planos de Ordenación, las Ordenanzas Reguladoras y el Plan de Etapas, los que poseen carácter específicamente normativo y de regulación de la actividad urbanística y, por tanto, deberá ajustarse de forma obligada a sus determinaciones.

El resto de los documentos poseen un carácter fundamentalmente informativo o explicativo, por lo que, en caso de contradicción de su contenido con los citados anteriormente, serán aquéllos los que prevalezcan.

Artº 8: INSTRUMENTOS DE EJECUCIÓN

Los instrumentos de ejecución del presente Plan Parcial serán, el Proyecto de Compensación de propietario único, al objeto de regularizar la configuración de las fincas, situando su aprovechamiento en las zonas aptas para la edificación con arreglo al planeamiento, así como para localizar los espacios dotacionales de cesión obligatoria y gratuita y las parcelas lucrativas a adjudicar al Ayuntamiento en concepto de cesión del 10% aprovechamiento; Proyecto de Urbanización para la realización de las obras propias de urbanización, y los Proyectos de Edificación para la ejecución de las construcciones.

Previa la obtención de licencia de los diversos Proyectos de Edificación, se deberá redactar el oportuno Proyecto de Urbanización, conforme a las determinaciones establecidas en el presente Plan Parcial para cada una de las zonas en él definidas.

Artº 9: SISTEMA DE ACTUACIÓN

El sistema de actuación previsto es el de COMPENSACIÓN.

Artº 10: OBLIGACIONES DERIVADAS DEL PRESENTE TEXTO REFUNDIDO DEL PLAN PARCIAL

Los compromisos derivados de la ejecución del Plan y que obligarán, tanto, al promotor del plan, así como a los futuros adquirentes de parcelas y al Ayuntamiento, son los siguientes:

1.- Los espacios dotacionales previstos en el presente Plan Parcial y que integran sistema de comunicaciones viarias, el sistema de espacios libres y zonas verdes de uso y dominio público, así como el sistema de equipamiento genérico, tendrán la condición de públicos, resultando los mismos de cesión obligatoria y gratuita al municipio.

2.- Udalak obrak onartu behar ditu Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren V. Tituluko II. Kapituluko 7. Atalean (179 eta 180. artikuluak) ezarritakoaren arabera; onartu arte, artapena sustatzailearen konturakoa izango da.

3.- Udalak urbanizazio obrak eta plan partzial honetan aurreikusitako instalazio eta hornidurak onartu eta gero, SAUR 1ean zerbitzu publikoak emango ditu Udal Administrazioak, edo hala badagokio, administrazio horren aginduz zerbitzu horiek kudeatzen dituzten enpresa edo organismoek.

4.- Sustatzaileak lurzatiak saltzeko kontratuetan plan honen konpromisoak azalaraziko ditu, halako moldez non erosleak beren beregi azaldu beharko baitu konpromisoak zehatz-mehatz ezagutzen dituela; halaber, kontratuetan, lurraren kalifikazioa, lurzatian baimendutako erabilerak, eraikigarritasuna, solairu kopurua eta mugetatiko distantziak.

II. KAPITULUA.- LURRAREN HIRIGINTZA ARAUBIDEA

11. artikulua. KALIFIKAZIO OSOA ETA XEHEKATUA

a) Indarrean dauden Lantarongo planeamenduaren ordezko arauen SAUR1 sektoreko indarreko fitxan ezarritako zehaztapenetan dago ezarrita lurzoruaren kalifikazio osoa, eta antolamendu-planoetan irudikatuta; bestalde, kategoria bakar batekoa da:

- Bizitegietarako Lurzoru Urbanizagarria.

Sektorearen berezko erabilera familia bakarreko bizitegirako parekatua da.

b) Lurzoruaren kalifikazio xehekatua antolamendu-planoan dago adierazita: “Kalifikazio xehekatua” Honako lur mota hauek hartzen ditu:

- Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak.
- Bide-sarea eta aparkalekuak
- Toki zuzkidura publikoa.
- Hiri zerbitzuak.
- Irabazteko xedez egiten den aprobetxamenduko lurzatiak (familia bakarreko bizitegia eta parekatua)

12. artikulua. EREMUAK BANATZEA.

Aurreko kalifikazioak ikusita, SAUR 1eko esparrua azpibanatu da hainbat erabilera xehekatu esleitzen dituen zonakatze batean, unitate horren hirigintzako araubidea arautzeko:

- Garraio eta komunikazio sistema
  - Bide-sarea eta aparkalekuak
- Jabari eta Erabilera Publikoko Gune Askeen Sistema Orokorra.
  - Berdegunea : Lorategiak eta jolasguneak
  - Pasatzeko zangak linea elektrikoak lur azpian jartzeko.
- Ekipamendu sistema
  - Kultur eta hezkuntza ekipamendua.
- Hiri zerbitzuetako sistema.
  - Gas hornidurarako azpiegiturak.
- Sistema Eraikia – Irabazi asmoko Eta Familia Bakarreko Bizitegietarako Aprobetxamenduko Guneak

Zona horren barruan 16 lurzati ezartzen dira, eta bakoitza “Kalifikazio xehekatua” izeneko planoan dago irudikatuta, eta gune bakoitzerako ordenantza berezien atalari dagokio hori arautzea.

*1. ATALA. PARTZELAZIOAK*

13. artikulua. PLAN PARTZIALEKO ZEHAZTAPENEN LOTURA

Lotesleak dira Plan Partzialean adierazitako honako mugatzeak: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruen mugatzea; derrigorrean eta doan laga beharreko ekipamendu publikoen mugatzea, eta horren ondorioz, bizitegirako partzelen kanpoko mugatzea.

*2. ATALA. URBANIZAZIO-PROIEKTUEN ARAUTZEA*

1. azpiatala. Orokortasunak.

14. artikulua. XEDEA

Urbanizazio-proiektuak obra-proiektuak dira, eta horien xedea plan partzialean ezarri diren zehaztapenak betetzea da; zehaztapen horiek, batez ere, bide-sareak (ibilgailuenak eta oinezkoenak), azpiegiturak eta

2.- La conservación de la urbanización será de cuenta del Ayuntamiento, si bien la misma correrá a cargo del promotor en tanto no se produzca la recepción de las obras por el Ayuntamiento, que deberá hacerse de acuerdo con lo establecido en la Sección 7ª del Capítulo II, del Título V del Reglamento de Gestión Urbanística (arts. 179 y 180).

3.- Una vez recepcionadas por el Ayuntamiento las obras de urbanización y las instalaciones y dotaciones cuya ejecución prevé el presente Plan Parcial, la prestación de los servicios públicos en el S.A.U.R. 1 se efectuará por dicha Administración Municipal, o, en su caso, por las empresas u organismos a los que la misma tenga encomendada la gestión de dichos servicios.

4.- El promotor consignará en los contratos de ventas de las parcelas los compromisos del presente Plan, de forma que el comprador declare expresamente su conocimiento exacto de los mismos, así como la calificación del terreno, usos permitidos en la parcela, su edificabilidad, número de plantas y separación a linderos.

CAPÍTULO II.- RÉGIMEN URBANÍSTICO DEL SUELO

Artº 11: CALIFICACIÓN GLOBAL Y PORMENORIZADA

a) La calificación global del suelo procede de las determinaciones establecidas en la vigente ficha del S.A.U.R. 1 de Puentelarra correspondiente a las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón, y se expresa gráficamente en los Planos de Ordenación, comprendiendo una categoría:

- Suelo Urbanizable Residencial.

El uso característico del Sector corresponde al residencial unifamiliar y pareado.

b) La calificación pormenorizada del suelo se expresa en el Plano de Ordenación: “Calificación Pormenorizada”. Corresponde a los siguientes tipos de suelo:

- Espacios libres de uso y dominio público.
- Red viaria y aparcamientos.
- Dotación pública local.
- Servicios urbanos.
- Parcelas con aprovechamiento lucrativo (residencial unifamiliar y pareado).

Artº 12: DIVISIÓN DE ZONAS

A la vista de las calificaciones anteriores se ha subdividido el ámbito del S.A.U.R. 1, con asignación de usos pormenorizados, al efecto de la regulación de su régimen urbanístico:

- Sistema de Transportes y Comunicaciones
  - Red viaria y aparcamientos
- Sistema de Espacios Libres de Uso y Dominio Público
  - Zona verde: Jardines y Áreas de Juego
  - Zanjas de paso para soterramiento de líneas eléctricas.
- Sistema de Equipamiento
  - Equipamiento cultural - docente.
- Sistema de Servicios Urbanos
  - Infraestructuras de suministro de gas.
- Sistema Edificado-Áreas con Aprovechamiento Lucrativo Residencial Unifamiliar.

Dentro de esta zona se establecen 16 parcelas, y cada una de ellas se representa en el Plano de “Calificación Pormenorizada”, estableciéndose su regulación en el apartado Ordenanzas Particulares.

*SECCIÓN 1ª: RELATIVO A LAS PARCELACIONES*

Artº 13: VINCULACIÓN DE LAS DETERMINACIONES DEL PLAN PARCIAL

La delimitación de los terrenos de uso y dominio público; la de equipamiento público de cesión obligatoria y como consecuencia de ello la exterior de las parcelas residenciales, indicada en el presente Plan Parcial, es vinculante.

*SECCIÓN 2ª: REGULACIÓN DE LOS PROYECTOS DE URBANIZACIÓN*

Subsección 1ª: Generalidades

Artº 14: OBJETO

Los Proyectos de Urbanización, son proyectos de obras, cuya finalidad es llevar a la practica las determinaciones contenidas en el presente Plan Parcial, referidas fundamentalmente a las redes viaria

zerbitzuak (ur-horniketa, saneamendua, argindarra, herriko argiak, telekomunikazioak, telekomunikazioak, eta abar) eta erabilera eta jabari publikoko espazio libreak (berdeguneak, eta erabilera publikoko espazio libreak) atontzeari buruzkoak dira.

Proiektu horiek honakoetan ezarritakoa bete behar dute: Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioari buruzko 6/98 Legea (18.3. artikulua), Hirigintza Planeamenduari buruzko Araudia (67. artikulutik 70.era), eta Lantarongo Hirigintzako Planeamenduko ordezko arauak, eta horiez gain honako ordenantza hauen barruan dauden zehaztapenak.

15. artikulua. SAUR-1EKO URBANIZAZIO PROIEKTUEN ESPARRUA; ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEA

SAUR1 burutzeko, urbanizazio-proiektu bakarra idatziko da, eta horrek jabari eta erabilera publikoko esparru guztiei eragingo die; horiek, edonola ere, esparru osoa hartuko dute, etapa bakarrean burutzea aurreikusita dagoelako.

Proiektuak barnean hartuko ditu hornidura-iturrietatik egin ahal diren zerbitzuen lotuneak, Sektorearen esparrutik kanpokoak badira ere, zerbitzu horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Arkitektura trabak kentzeari buruz, derrigorrean bete beharko dira Irisgarritasunaren Sustapenari buruzko Legea (Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legea) eta lege hori garatzeko Araudia (Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua).

16. artikulua. PLAN PARTZIALEKO ZEHAZTAPENEN LOTURA

Urbanizazio-proiektuak ezin izango ditu Plan Partzialaren funtsezko aurreikuspenak aldatu; hala ere, aurreikuspen horiek obrak burutzeko irizpide eta beharrizan teknikoetara egokitzea onartu ahal izango da, baldin eta egokitzapen hori justifikatuta badago, eta baldin eta ez badira aldatzen Plan Partzialak kalifikatutako azalerak eta ez badira aldatzen lurzoruaren edo eraikinaren ordenazioa eta araubidea; izan ere, azken kasu hori Plan Partziala aldatzea izango litzateke, eta horretarako aldez aurretik aldaketaren izapidea egin behar da, Planeamenduko Araudiaren 68. artikuluarekin bat etorriz.

17. artikulua. AGIRIAK

Urbanizazio-proiektuak gutxienez Planeamenduko Araudiaren 69. eta 70. artikuluetan adierazitako agiriak barnean hartu beharko ditu, eta horiez gain barnean hartu behar ditu telefonoa edo komunikazioak bideratzeko sarea eta Arau Subsidiarioetan jasotako guztia.

2. azpiatala. Urbanizazio proiekturako diseinuaren baldintzak

18. artikulua. URBANIZAZIO-PROIEKTUA DISEINATZEKO BALDINTZAK

Berdeguneak eta eremu askeak zelan artatu urbanizazio proiektuan dago zehazteke, baina modu bateratuan egingo da batera kudea daitezen.

A) Ibilgailuentzako bide sarea eta eremu askeak

Bide-sarearen neurri osoak (aurrez aurreko lerrokaduren artekoak) lotesleak izango dira.

Ibilgailuen galtzaden neurriak gutxi gorabeherakoak izango dira, eta aparkalekuetarako alboetako zerrendekin batera doitu ahal izango dira. Aparkalekuetarako gune horiek ezin izango dira murriztu %25 baino gehiago, plan partzialeko planoan ezarritakoarekiko, aparkalekuen plaza-kopuruari dagokionez.

Espaloiak osorik zolatuta egongo dira. Zolaketa mota Larrazubin dagoenaren antzekoa izango da. Jaramon egin beharko zaio, halaber, hirigintza trabak kentzeari buruz indarrean dagoen arautegiari, Irisgarritasunaren Sustapenari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Legeari, eta hori garatzen duen Arautegiari (apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua).

Eremu askeak zolatzeko, espaloietako zolaketa motaren antzekoa erabiliko da, indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorrita.

B) Berdeguneak, haurren jolasgunea.

(rodada y peatonal), de infraestructuras y servicios (abastecimiento de agua, saneamiento, energía eléctrica, alumbrado público, telecomunicaciones, etc.), y de acondicionamiento de los espacios libres de uso y dominio público (zonas verdes y espacios libres de uso público).

Estos proyectos cumplirán con lo establecido en la Ley 6/98, de Régimen del Suelo y Valoraciones (art. 18.3), en el Reglamento de Planeamiento Urbanístico (art. 67 al 70); y en las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón, además de las determinaciones contenidas en las presentes ordenanzas.

Artº 15: ÁMBITO DE LOS PROYECTOS DE URBANIZACIÓN EN EL S.A.U.R. 1: SUPRESIÓN DE LAS BARRERAS ARQUITECTÓNICAS

Para la ejecución material del S.A.U.R. 1, se procederá a la redacción de único Proyecto de Urbanización que afecte a la totalidad de los espacios definidos como de dominio y uso público, que contemplaran en cualquier caso la totalidad del ámbito dada que se prevé su ejecución en una única etapa.

El proyecto incluirá las posibles conexiones de los distintos servicios, desde las fuentes de suministro, aunque sean exteriores al ámbito del Sector, de manera que se garantice su correcto funcionamiento.

Será de obligado cumplimiento, sobre supresión de barreras arquitectónicas, la Ley 20/1997, sobre Promoción de la Accesibilidad y el Decreto 68/2000 de desarrollo de la citada Ley.

Artº 16: GRADO DE VINCULACIÓN DE LAS DETERMINACIONES DEL PLAN PARCIAL

El Proyecto de Urbanización no podrá modificar las previsiones fundamentales del Plan Parcial, no obstante podrá admitirse la adaptación de aquellas previsiones a criterio y necesidades técnicas de ejecución de obra, siempre que se justifique dicha adaptación y no signifique modificación de las superficies calificadas por el Plan Parcial, ni alteraciones sobre ordenación y régimen de suelo o de la edificación, adquiriendo en este caso carácter de modificación del Plan Parcial, lo que exigirá previamente su tramitación, de conformidad con el artículo 68 del Reglamento de Planeamiento.

Artº 17: DOCUMENTACIÓN

El Proyecto de Urbanización deberá comprender como mínimo los documentos indicados en los artículos 69 y 70 del Reglamento de Planeamiento, incluyendo además la red de canalización telefónica o comunicaciones, así como lo establecido en las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Lantarón.

Subsección 2ª: Condiciones de Diseño para el Proyecto de Urbanización

Artº 18: CONDICIONES DE DISEÑO PARA EL PROYECTO DE URBANIZACIÓN

El tratamiento a concretar en el Proyecto de Urbanización de las zonas verdes y espacios libres se realizará de modo unitario para facilitar su funcionamiento conjunto.

A) Red viaria rodada y espacios libres

Son vinculantes las dimensiones totales (entre alineaciones opuestas) de la red viaria.

Las dimensiones de las calzadas de rodadura se consideran orientativas, pudiendo reajustarse conjuntamente con las bandas laterales de aparcamiento. Estas áreas de aparcamiento no podrán reducirse más de un 25% en su capacidad total en número de plazas, respecto de lo indicado en el plano correspondiente al Plan Parcial.

Las aceras irán pavimentadas en su totalidad. El tipo de pavimento será similar al existente en la localidad de Puentelarra. Deberá adoptarse la normativa vigente para la supresión de barreras urbanísticas, la ley 20/1997 del Gobierno Vasco, sobre Promoción de la Accesibilidad y el Reglamento que la desarrolla. ( Decreto 68/2000 de 11 de Abril).

Los espacios libres irán pavimentados con un tipo de pavimento similar al de las aceras, debiendo adaptarse a la normativa vigente.

B) Zonas Verdes, Area de juego de niños.

Horrela izendatuko dira ezaugarri geomorfologikoengatik edo planaren ordenazioarengatik eraikinik, zoladurarik edo lorategi apaingarririk edukiko ez duten guneak.

Berdeguneak sortu eta erabili eta zuhaiztiak kudeatu eta babesteari buruzko udal ordenantzetan jasotakoarekin bat etorrita tratatuko dira, tratamendua artifizial edo naturala kontuan izanda.

Haurren jolasgunea

Haurren jolasguneak hiri-altzari eta jolas-aparatu egokiekin hornitu beharko dira, eta guneen azaleraren %33, gutxienez, zolatu egin beharko da.

Haurren jolasguneetan zuhaitz egokiak jarriko dira; hosto erorkorrekoak hobetsiko dira, eguzkiaren berotasuna kontrolatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 11ko 175/1983 Dekretua bete beharko dute haurren jolasguneek, Haurren babeserako neurriei eta jolasguneei buruzkoa.

3. azpiatala Urbanizazio proiekturako diseinuaren baldintzak

19. artikulua. URBANIZAZIO OBRA GUZTIAK

Urbanizazio-obra guztiak sektorean indarrean dagoen eta bete behar den arautegira egokituko dira, bai eta zerbitzu bakoitza hornitzen duten enpresen arautegira ere; era barean, horretarako dauden udal zerbitzuek orokorrean ezarritakoetara.

Azpiegitura-zerbitzuetako sareetako eskemen planoetan adierazten diren trazadurak eta neurriak orientaziozkoak dira; beraz, aldaketak egin daitezke –inoiz ez funtsezkoak–, behar bezala justifikatuta, urbanizazio-proiektuari dagokion bezala aztertu eta zehaztasun handiagoz kalkulatu ostean.

Urbanizazio proiektu hau fase bakarrean burutuko da.

Hala ere, urbanizazioa hainbat etapatan burutzea aztertu ahal izango da, eraikuntza eta urbanizazioa aldi berean egiteko helburuz, baldin eta sustatzailea eta Udala horren alde badaude.

Urbanizazio-proiektua izapidetu eta onartzeko honako agiriak aurkeztu beharko dira, berezko agiriez gain: plan partzialaren behin betiko onespen-idazkia; ordenazioaren eta bide-sarearen planoak, eta plan partzialeko azpiegitura-sareen eskema.

Obra edo zerbitzu mota bakoitza urbanizazio-proiektuaren kapitulu berezia izango da (proiektu independenteak izan daitezke), eta ordenantza hauen 17. artikuluan adierazitako agiriak hartuko ditu barnean.

Zerbitzuen azpiegituren sareei buruzko proiektuetan instalazioen arteko tarteetarako gutxieneko baldintzak hartuko dira kontuan, bai eta zuhaitzen sustraiek etorkizunean egin ditzaketen kalteak ere.

20. artikulua. URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK, IBILGAILUEN ETA OINEZKOEN BIDE-SARERAKO

Alderdi grafikoan, eta Planeamenduko Araudiaren 52. eta 60. Artikuluak betetzeko, bideen sekzioa azaltzen da, ondoko zehaztapenak ezarrita:

Oinplanoko Trazadura

Behin betiko sestrak. Gaur egungo sestrak

Zeharkako profilak eta Luzerako profilak

Bide-sareari dagokionez, baldintza zehatzak urbanizazio proiektu egokian ezarriko dira, plan partzialeko zehaztasunetan oinarrituta.

Edu bertsuan, urbanizazio proiektuan, egungo bidearekiko lotura zehaztu da “A” poligonoaren hegoaldean, ibilgailuen zirkulaziorako jarraikortasunik onena emango dio, eta sektoreko zein kanpoko espaloien inguruko adostasuna gauzatuko da.

Bideen zoladura jartzea proiektatu, kalkulatu eta dimentsionatzeko, indarrean dagoen araudia aplikatuko da, eta inguruko aldeen itxura berdina izan behar duenez, Udalak orokorrean hartutako irizpideak aplikatu beharko dira.

Bideen zorua malgua izango da. Zoruaren sekzioa MOPU-k emandako 6.1.- IC eta 6.2.- IC argibideei dagokie, eta bere zoruen kata-

Se denominan así a aquellas áreas que bien por sus características geomorfológicas, o por la ordenación del plan, no son destinatarias de edificación, pavimentación, ni ajardinamiento ornamental.

Su tratamiento se realizará de acuerdo a las correspondientes Ordenanzas Municipales de creación, usos de zonas verdes y gestión y protección de arbolado, en función de su grado de tratamiento artificial/natural.

Área de Juego de Niños.

Las áreas de juego de niños deberán dotarse del mobiliario urbano correspondiente y aparatos recreativos, debiendo estar pavimentada al menos en un 33%.

Las áreas de juego de niños se dotarán de arbolado adecuado, colocándose preferentemente de hoja caduca, en control del soleamiento.

Las áreas de juego de niños deberán cumplir el Decreto 175/1983 de 11 de Julio del Gobierno Vasco, sobre “Medidas de Protección Infantil y Zonas de Recreo”.

Subsección 3ª: Condiciones Técnicas para el Proyecto de Urbanización

Artº 19: COMÚN A TODAS LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN

Las obras de urbanización se adaptarán a la normativa sectorial vigente de obligado cumplimiento, así como a la propia de las empresas suministradoras de cada servicio, y a las establecidas con carácter general por los servicios municipales correspondientes.

Los trazados y dimensionamientos indicados en los planos de esquemas de redes de los distintos servicios de infraestructura tienen carácter indicativo, pudiendo por tanto sufrir modificaciones –nunca sustanciales- debidamente justificadas, como consecuencia del estudio y cálculo con mayor precisión que compete al Proyecto de Urbanización.

Este proyecto de Urbanización contemplará su ejecución en fase única.

Sin embargo, y de así considerarlo el promotor de acuerdo con el ayuntamiento, y con el fin de simultanear la edificación con la urbanización, se podrán estudiar etapas distintas para la ejecución de la urbanización.

Para la tramitación y aprobación del Proyecto de Urbanización, serán presentados además de su documentación propia, el oficio de aprobación definitiva del Plan Parcial; planos de ordenación, red viaria y esquema de redes de infraestructura del Plan Parcial.

Cada clase de obra o servicios constituirá un capítulo independiente (pudiendo ser proyectados independientes) del Proyecto de urbanización que contendrá los documentos indicados en el artº 17 de estas Ordenanzas.

En los proyectos referidos a redes de infraestructuras de servicios se tendrán en cuanta las condiciones mínimas de separación entre distintas instalaciones, así como la afección futura por raíces de arbolado.

Artº 20: CONDICIONES TÉCNICAS DEL PROYECTO DE URBANIZACIÓN PARA LA RED VIARIA RODADA Y PEATONAL

En la parte gráfica y en cumplimiento de los artículos 52 y 60 del R.P. se describe la sección del viario definiendo las siguientes determinaciones:

Trazado en Planta

Rasantes Definitivas. Rasantes Estado Actual

Perfiles Transversales y Pendientes Longitudinales

Las condiciones concretas respecto a la red viaria serán las que determine el oportuno Proyecto de Urbanización sobre la base de las especificaciones contenidas en el Plan Parcial.

Asimismo el Proyecto de Urbanización concretará el entronque con el actual viario, al sur del Polígono “A”, lo dotará de la mejor continuidad posible respecto a la circulación rodada, produciéndose el acuerdo en las aceras, tanto del Sector como externas a él.

Para el Proyecto, cálculo y dimensionamiento de la pavimentación de los viales será de aplicación la normativa vigente y por razones de uniformidad con otras áreas próximas, los criterios adoptados con carácter general por el Ayuntamiento.

El firme será del tipo flexible, la sección de firme considerada corresponde a la Instrucción 6.1-IC y 6.2.-IC del MOPU con número

logoan 222 zenbakia du. Trafiko mota: T2; zabalgunea: E2 10 ≤ CBR ≤ 20

Ibilgailuen trafikorako galtzadak egokituko zaizkie Eusko Jaurlaritzak T2 motako trafikorako egindako araudiari.

Obrak burutu baino lehen, bide-sareak hartuko dituen guneetan edo zolatu beharreko beste aldeetan gaineko landare-lurraren geruza kendu eta bilduko da, gerora lorategien guneetan aprobetxatzeko.

Oinezkoen eta ibilgailuen bideetan derrigorrean bete beharko dira hirigintzako trabak kentzeari buruzko arautegia, abenduaren 4ko 20/1997 Legea, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua.

Zolatu beharreko espaloiak eta oinezkoentzako guneak behar bezala prestatutako gainazalen gainean ezarriko dira, esaterako, zabalgune hobetuan edo oinarri pikortatuan, hormigoizko zolan (10 zentimetroko gutxieneko lodiera) eta zoladura gogorrean (baldosa edo antzekoa). Dilatazio eta uzkurtze juntura egokiak jarriko dira.

- Oinezkoen esparruetan akaberako zoladura jarri behar izanez gero, honakok hartu beharko dira kontuan: urraduraren kontrako erresistentzia; garbiketako eta etxe-aldaketako ibilgailuak, anbulantziak eta abar igarotzeak sortzen dituen berezko kargen kontrako erresistentzia; izozteko aukera; ura edo izotza egonez gero, izan dezakeen labaingarritasuna; konponketarik eginez gero, erraz alda daitekeen; apaingarrirako kalitaterik daukan, eta erraz garbitu daitekeen.

Gutxieneko hiri-altzari egokiak jarriko dira, oinezkoak zein ibilgailuak, kasuan kasu, oztoporik gabe igarotzeko moduan.

